

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

3/2015 FORU ARAUA, apirilaren 7koa, mendeko finantza-ekarpenetatik, mendeko zorretik eta lehentasunezko partaidetzetatik datozen errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea onartzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «3/2015 FORU ARAUA, apirilaren 7koa, mendeko finantza-ekarpenetatik, mendeko zorretik eta lehentasunezko partaidetzetatik datozen errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea onartzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2015eko apirilaren 7a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia. (3243)

HITZAURREA

Ekonomiaren eta finantzen krisiak kalte ekonomiko handiak eragin ditu biztanleriaren hainbat sektoreentzat. Horri erantzutearren, azken urteotan Gipuzkoako Batzar Nagusiek era askotako neurriak hartu dituzte zergen alorrean, eta haien helburua izan da krisi horretan kalteetuen gertatu diren zergadunei –finantza-entitateekin hartutako hipoteka-konpromisoak ezin betetzeagatik etxebizitza galdu duten pertsonen, esaterako– haren ondorio negatiboak arintzea, pertsona horiek etxetik botatzea eta hipotekak exekutatzea helburu duten eragiketei aplikatzen zaizkien kargen tributazio erregeletan salbuespenak edo aldaketak ezarri.

Logika horren barruan kokatu beharra dago mendeko zorren edo lehentasunezko partaidetzen ondorioz 2015. urtea baino lehen sortutako errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko sistema, hain zuzen ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiak dagoeneko jasotzen duena abenduaren 16ko 18/2014 Foru Arauak, 3/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen dituenak, haren barruan sartu eta gero. Berariazko konpentsazio araubide hau ezarri zen aurreztaileei arintzeko informazio eskas baten ondorioz arrisku handiko finantza produktuetan edo euren profil inbertsorera ongi egokitu gabekoetan behin inbertituta aurrezkiak galdu izanak eragindako efektuak.

Bere jarduera ekonomikoaren finantzaketari lotuaz, kooperatiben mugimenduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren sare produktiboan guztiz erroturik dagoenak, mendeko finantza-ekarpenetara jo du mendeko finantzaketa sistema gisa, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legean aurreikusitako inbertsio-tresna diren aldetik. Mendeko finantzaketa horren zati handi bat aurreztaile txikien gain geratu zen, aurrezki gehienak horrelako produktuetan inbertitu dituztelako.

Inbertsio horiek balio-galera nabarmena izan dute, eta horren arrazoia funtsean da haiek kotizatzen duten merkatu antolatuan (SEND) ia guztiz desagertu dela eskaera. Kasurik

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 3/2015, de 7 de abril, por la que se aprueba el régimen de integración y compensación de rentas negativas derivadas de aportaciones financieras subordinadas, deuda subordinada y de participaciones preferentes.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «NORMA FORAL 3/2015, de 7 de abril, por la que se aprueba el régimen de integración y compensación de rentas negativas derivadas de aportaciones financieras subordinadas, deuda subordinada y de participaciones preferentes» a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 7 de abril de 2015.—El diputado general, Martin Garitano Larrañaga. (3243)

PREÁMBULO

La crisis económica y financiera ha supuesto importantes quebrantos económicos a amplios sectores de la población. En respuesta a esta situación, en los últimos años las Juntas Generales de Gipuzkoa han adoptado numerosas medidas en materia tributaria al objeto de paliar los efectos adversos que afectan a los contribuyentes más perjudicados por esta situación, como los que han perdido sus viviendas por no poder hacer frente a los compromisos hipotecarios adquiridos con entidades financieras, estableciendo exenciones o modificaciones en las reglas de tributación de los gravámenes que recaen sobre las operaciones de lanzamiento y ejecución hipotecarias.

En esta misma lógica cabe también incluir el sistema de compensación e integración de rentas negativas generadas antes de 2015, derivadas de deuda subordinada o de participaciones preferentes, incluido en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a través de la Norma Foral 18/2014, de 16 de diciembre, que aprueba correcciones técnicas de la citada Norma Foral 3/2014 y otras modificaciones tributarias. Este régimen de compensación específico se estableció al objeto de paliar los efectos derivados de la pérdida de sus ahorros por parte de ahorradores que, como consecuencia de una información deficiente, invirtieron en productos financieros no adecuados a su perfil inversor o de alto riesgo.

En el ámbito de la financiación de su actividad económica, el movimiento cooperativo, con gran arraigo en el tejido productivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ha accedido a la financiación subordinada a través de las aportaciones financieras subordinadas, instrumentos de inversión previstos en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi. Una buena parte de esta financiación subordinada fue asumida por pequeños ahorradores, que han invertido la mayor parte de su ahorro en este tipo de productos.

Estas inversiones han experimentado una pérdida de valor realmente acusada derivada fundamentalmente de la práctica desaparición de la demanda en el mercado organizado en el

larrienak gertatu dira entitate jaulkitzailearen konkurtso-deklarazioak eta haren ondorengo likidazioak eragin dutenean ekarpena egin duenak erabat galtzea hasieran inbertitutako kopurua.

Egoera horren aurrean, era horretako ekarpenen titular askok erreklamazio judizialak aurkeztu dituzte inbertitutako kopuruak euren eskuetara itzul daitezzen, eta horren ondorioz une hauetan kontratuak deuseztatzeko epaiak ematen ari dira. Hori guztia dela-eta, gaur egun ugaltzen ari dira mendeko finantza-ekarpenen titularrek eta entitate merkaturatzaileek adostutako akordio estrajudizialak.

Testuinguru horretan, titulu horien izaera hibridoak eragindako konplexutasun berezia kontuan hartuta, eta kooperatiben mendeko finantzaketaren zerga tratamendua beste lurralde historikoekin harmonizatuta egon dadin, foru arau honek ezartzen du zer kalifikazio zehatz izango duten, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, mendeko finantza-ekarpenen titularrek lortzen dituzten errentek ekarpen horiek gerta daitezkeen egoera guztietan.

Bestalde, azal dutako zirkunstantziei erreparatuta, eta finantza-produktu horien zerga tratamendua lurralde historikoen artean harmonizatuzko, errenta negatiboak konpentsatu eta integratzeko gaur erabiltzen den sistema osatzen da denboramuga jakin bati lotuta ez dagoen sistema bat ezarrita, non mendeko zorrari eta lehentasunezko partaidetzei erreferentzia egiteaz gainera, kooperatiben mendeko finantza-ekarpenak ere aipatzen baitira berariaz.

Artikulu bakarra. Aldatzea 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena.

Aldaketa hauek sartzen dira 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita zortzigarrena, honako hau dioena:

«Hogeita zortzigarrena. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legean aurreikusita dauden mendeko finantza-ekarpenen ondorioz pertsona fisikoek lortutako etekinei aplikatu beharreko zerga araubidea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren mendeko finantza-ekarpenetatik datozen errentak kapital propioak hiru-garrenei lagatzeagatik lortutako etekintzat joko dira, foru arau honen 35. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Tratamendu fiskal hau aplikatuko da ondorengo egoeretan, zein egunetan gertatzen diren edo gertatu diren aintzat hartu gabe:

a) Balore horiek eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtzeko eragiketen kasuan, lortutako etekinak aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalifikatuko dira.

Entitate merkaturatzaileekin adostutako akordio estrajudizialen ondorioz egiten diren transakzioek ere tratamendu bera izango dute, dagozkien ordainketei konturako atxikipena aplikatu edo ez.

b) Tituluen harpidetza deuseztat jotzen duten epaiak ematen direnean, titularrak ondare irabazi edo galera bat izan duela joko da, epaia irmo bihurtzen den ekitaldiari egotzi beharko diona. Irabazi edo galera hori diferentzia honen emaitza garbia izango da: titularraren alde aitortutako berandutza-interesak ken hark ordaindu behar dituen kopuruak gehi dagozkien berandutza interesak. Horrek ez du zertan ekarriko autoliquidazioak zuzentzea.

que cotizan (SEND), siendo los supuestos más extremos aquellos en los que la declaración de concurso de la entidad emisora, y su posterior liquidación, provoca la pérdida total de la cantidad invertida inicialmente por los aportantes.

Ante esta situación, han sido muchos los titulares de estas aportaciones que han planteado reclamaciones judiciales para lograr la devolución de las cantidades invertidas, lo que está dando lugar a sentencias de nulidad de los contratos. Como consecuencia de lo anterior, han proliferado asimismo los acuerdos extrajudiciales entre los titulares de las aportaciones financieras subordinadas y las entidades comercializadoras.

En este contexto, ante la especial complejidad que origina la naturaleza híbrida de estos títulos, y en aras de la armonización con el resto de Territorios Históricos del tratamiento tributario de la financiación subordinada de las cooperativas, la presente Norma Foral establece, a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la calificación expresa de las rentas que obtengan los titulares de aportaciones financieras subordinadas en las distintas situaciones que éstas se puedan producir.

Por otra parte, atendiendo a las circunstancias expuestas y en aras de la armonización del tratamiento tributario de estos productos financieros entre los Territorios Históricos, se complementa el sistema vigente de compensación e integración de rentas negativas, con la aprobación de un sistema de compensación e integración no circunscrito a un horizonte temporal determinado, en el que se incluye la referencia expresa a las aportaciones financieras subordinadas de cooperativas, además de a la deuda subordinada y a las participaciones preferentes.

Artículo único. Modificación de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. Se añade una disposición adicional, la vigesimoc-tava, con el siguiente contenido:

«Vigesimoc-tava. Régimen fiscal aplicable a los rendimientos obtenidos por personas físicas derivados de aportaciones financieras subordinadas previstas en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

1. Con efectos a partir del 1 de enero de 2015, las rentas derivadas de las aportaciones financieras subordinadas a que se refiere el apartado 5 del artículo 57 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, se calificarán como rendimientos obtenidos por la cesión a terceros de capitales propios, de acuerdo con lo establecido en el artículo 35 de esta Norma Foral.

2. Con independencia de la fecha en que se produzcan o se hayan producido las situaciones que se señalan a continuación, el tratamiento fiscal aplicable será el siguiente:

a) En el caso de operaciones de transmisión, reembolso, amortización, canje o conversión de dichos valores, los correspondientes rendimientos se calificarán conforme a lo dispuesto en el apartado anterior.

El mismo tratamiento fiscal será de aplicación a las transacciones derivadas de acuerdos extrajudiciales con las entidades comercializadoras, hayan sido o no sometidos a retención a cuenta los correspondientes abonos.

b) En el caso de sentencias con declaración de nulidad de la suscripción de los títulos, se entenderá que el titular de los mismos obtiene una ganancia o pérdida patrimonial, imputable al ejercicio en que la sentencia adquiera firmeza, por la diferencia neta entre los intereses de demora reconocidos a su favor y las cantidades a que debe hacer frente junto con sus correspondientes intereses de demora, sin que proceda por tal motivo la rectificación de las correspondientes autoliquidaciones.

c) Tituluak jaulki dituzten kooperatibak konkurtso egoeran deklaratu badira eta titulu horiek kreditu konkurtsal bihurtzen badira, zergadunek bi aukera izango dituzte: batetik, kreditu horrek eragindako ondare-aldaketa errenta orokorrean sartzea, foru arau honen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, bestetik, xedapen gehigarri honetako 1. apartatuan ezarritako kalifikazioa aplikatzea.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoak ez du aldatuko mendeko finantza-ekarpenen zerga-tratamendua kooperatiba jaulkitzaileei dagokienez. Izan ere, kooperatiba horiei Kooperatiben zerga araubideari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauaren 15.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie beti.».

Bi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita bederatzigarrena, honako hau dioena:

«Hogeita bederatzigarrena. Mendeko finantza-ekarpenetatik, mendeko zorretik eta lehentasunezko partaidetzetatik datozen errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea.

1. Foru arau honen 66. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoa gorabehera, apartatu horretako a) eta b) letretan aipatzen diren saldo negatiboetan zatiren bat baldin badagokie Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57.5 artikuluan aipatzen diren mendeko finantza-ekarpenetatik datozen ondare galerei edo kapital higigarriaren etekin negatiboari, zati hori letra horietan aipatzen den saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango da —letra batekoarekin zein bestekoarekin—, betiere foru arau honen 66.1 artikuluan aurreikusita dagoen lau urteko epea igaro ez bada. Konpentsazioa egiteko, ez da kontuan hartuko galerak edo etekin negatiboak noiz gertatzen diren edo gertatu diren.

Kompentsazio araubide hau berdin aplikatuko zaie ondare galerei eta kapital higigarriaren etekin negatiboari, mendeko finantza-ekarpenak berrerosteko eta harpidetu edo trukatzeko eragiketengatik jasotako baloreen eskualdaketatik datozenean.

2. Mendeko zorra eta lehentasunezko partaidetzak jaulki badira inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta finantza-bitartekarien informazio-betekizunei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeak bigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan, aurreko apartatuan zehaztutako tratamendu bera aplikatuko zaio saldo negatiboetan ondare galeretatik edo kapital higigarriaren etekin negatiboetatik datorren zatiari, baita berrerosteko eta harpidetu edo trukatzeko eragiketengatik jasotako baloreen eskualdaketatik datozenei ere, galera edo etekin negatiboak zein egunetan gertatzen diren kontuan izan gabe.

3. Xedapen gehigarri honetan araututako integrazio eta konpentsazio araubidea 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da».

AMAIERAKO XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta bere artikuluetan jasotakoari jarraituta sortuko ditu ondorioak.

c) En el caso de que las cooperativas emisoras de los correspondientes títulos hayan sido declaradas en situación de concurso y éstos se conviertan en un crédito concursal, los contribuyentes podrán optar por incluir la alteración patrimonial derivada de este crédito en la renta general de conformidad con lo dispuesto en el artículo 62 de esta Norma Foral, o por aplicar la calificación prevista en el apartado 1 de la presente disposición adicional.

3. Lo dispuesto en esta disposición adicional no modificará el tratamiento tributario de las aportaciones financieras subordinadas para las cooperativas emisoras, a las que resultará de aplicación en todo caso lo dispuesto en el artículo 15.4 de la Norma Foral 9/1997, de 14 de octubre, sobre régimen fiscal de las Cooperativas.».

Dos. Se añade una disposición adicional, la vigesimonovena, con el siguiente contenido:

«Vigesimonovena. Régimen de integración y compensación de rentas negativas derivadas de aportaciones financieras subordinadas, de deuda subordinada y de participaciones preferentes.

1. No obstante lo establecido en el apartado 1 del artículo 66 de esta Norma Foral, la parte de los saldos negativos a que se refieren las letras a) y b) del citado apartado que proceda tanto de pérdidas patrimoniales como de rendimientos de capital mobiliario negativos, derivados de las aportaciones financieras subordinadas a que se refiere el apartado 5 del artículo 57 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, con independencia de la fecha en que se produzcan o se hayan producido, se podrá compensar con el saldo positivo a que se refieren dichas letras, indistintamente, siempre que no hubiera finalizado el plazo de cuatro años previsto en el apartado 1 del artículo 66 de esta Norma Foral.

Este régimen de compensación será así mismo de aplicación a las pérdidas patrimoniales y a los rendimientos de capital mobiliario negativos que se deriven de la transmisión de valores recibidos por operaciones de recompra y suscripción o canje de dichas aportaciones financieras subordinadas.

2. En el caso de deuda subordinada y de participaciones preferentes emitidas en las condiciones establecidas en la disposición adicional segunda de la Ley 13/1985, de 25 de mayo, de coeficientes de inversión, recursos propios y obligaciones de información de los intermediarios financieros, se aplicará idéntico tratamiento al previsto en el apartado anterior, a la parte de los saldos negativos derivados tanto de pérdidas patrimoniales como de rendimientos de capital mobiliario negativos, incluso los derivados de la transmisión de valores recibidos por operaciones de recompra y suscripción o canje, con independencia de la fecha en que se produzcan.

3. El régimen de integración y compensación regulado en la presente disposición adicional será de aplicación a partir del 1 de enero de 2015».

DISPOSICIÓN FINAL

Única. Entrada en vigor.

La presente norma foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos de acuerdo con lo previsto en su articulado.